



2024ko zerga-araudiaren berrikuntzak

SARRERAKO OHARRA

Testu hau dibulgazio-dokumentu bat da, inolako izaera ofizialik gabea, 2024ko ekitaldiko zerga-araudiaren berrikuntzak jasotzen dituena.

- [1/2024 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena \(GAO 2024-05-17\).](#)
- [2/2024 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, kultura sustatzeko zerga-pizgarriak eguneratu eta zabaltzen dituena \(GAO 2024-05-17\).](#)
- 1/2024 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 17koa, 2024. urterako zenbait zerga neurri onesten dituena (GAO 2024-12-19).
- [55/2024 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzekoa \(GAO 2024-12-05\).](#)
- [56/2024 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, zeinaren bidez Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen baita kultura sustatzea helburu duten zerga-pizgarriak garatzeko \(GAO 2024-12-09\).](#)
- [509/2024 Foru Agindua, abenduaren 20koa, zeinaren bidez onesten baita 20F ereduak, ikerketa eta garapen jarduerak, berrikuntza teknologikokoak, ikusentzunezko obrak eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunak egiteko proiektuen finantzaketan parte hartzearen berri ematekoa \(GAO 2024-12-31\).](#)

• 1/2024 FORU ARAUA, MAIATZAREN 10EKOA, 2024. URTERAKO ZENBAIT ZERGA ALDAKETA ONESTEN DITUENA (GAO 2024-05-17).

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarriaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren (aurrerantzean, "SZFA") zenbait artikulua aldatzen ditu.

1. 11. artikulua. Zergadunak.

1.i) apartatuan, Inbertsioak Bermatzeko Funtzak sartzen ditu zergadun gisa, Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko **6/2023 Legean** arautuak.

2. 34. artikulua. Entitateetako partaidetza eskualdatuz lortutako errenten zergapetze bikoitza kentzea.

Aldatu egiten da 4. apartatuko c) letra, eta d) letra gehitzen da, entitateetako partaidetza eskualdatzeagatik lortutako errenten zergapetze bikoitza ezabatzeari buruzko erregulazioa hobetzeko, eskualdatutako partaidetza fusioen, zatiketen eta abarren araubide bereziko arauen arabera baloratu denean, eta arau horiek aplikatzeak errentak zerga honen, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarrian ez integratzea ekarri duenean. Horrela, tributazioa geroratuta duten gainbalio horiek, geroko eskualdaketa batean, ez dira tributatu gabe geratuko.

3. 39. artikulua. Sarreraren arloko beste zuzenketa batzuk.

5. apartatuko a) letra aldatzen da, esnearen, mahatsaren, udarearen, mertxikaren, nektarinaren, azukre erremolatxaren edo azukre kanaberaren produkzioa behin betiko uzteagatik edo bananondoak, sagastiak, madariondoak, mertxikondoak eta nektarinondoak erauzteagatik Europar Batasuneko nekazaritza politikaren laguntzak jasotzeagatik errenta positiboak ez integratzeari buruzkoa, bai eta klimaren eta ingurumenaren aldeko erregimenei (ekoerregimenei) emandakoak ere.

4. 40. artikulua. Balorazio-arauak: arau nagusia eta arau bereziak kostu gabeko eskualdaketatik eta sozietate eragiketetatik.

Irabazizko eskualdatzeak eta sozietate-eragiketak baloratzeko arauetan (3., 6. eta 7. apartatuak), "kontabilitate balioa" kendu eta "balio fiskala" jarri da.

5. 48. artikulua. Entitate ez-egoiliarrek eta atzerrian kokatutako establezimendu iraunkorrek lortutako errenta positibo batzuk zerga oinarrian sartzea.

1. paragrafoa aldatu egin da, eta nazioarteko gardentasun fiskala atzerrian dauden establezimendu iraunkorren kasuan ere aplikatzen da.

6. 54. artikulua. Aldi-egozketa. Sarrera eta gastuak kontabilitatean inskribatzea.

13. paragrafoa gehitu da:

Gizarte Segurantzako LAAB berria – kotizazioen erregularizazioa

- Diru-sarrera gehigarriak egiten diren edo dagozkien itzulketak lortzen diren zergaldietara egozte

- Kotizazioei dagokien zergaldian erregularizazioak sartzeko aukera zergadunarentzat

☐ Autolikidazio osagarriaren edo zuzentzeko eskaeraren bidez

☐ Interesik eta zehapenik gabe

Aurrekoarekin bat etorriz, "v" letra gehitzen zaio **SZFaren 128. artikuluko 1. apartatuari**, autolikidazioa aurkeztean baliatzeko aukera gisa.

7. 61. artikulua. Aktibo ez-korrante berrietan egindako inbertsioen kenkaria (*euskarako bertsioan bakarrik*).

Terminologia-akatsak direla eta, euskarazko bertsioaren artikulua osoa transkribatu da.

8. 64.bis artikulua. Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea.

Malgutu egiten da ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzeagatik aplikatzen den kenkaria, eta, horretarako, erregulazioan izaera orokorrean txertatzen dira pandemiagatik eta Ukrainaren inbasioagatik azken urteotan aplikatu diren aldi baterako neurrietako batzuk.

Araubidea ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektu hauei aplikatuko zaie:

- Mikroenpresak eta enpresa txikiak, oro har, horrelako jarduerak egiteko finantzaketa-zailtasun handienak dituztenak.

- Sorrera berriko enpresa ertain berritzaileek garatutako proiektuak.

- Enpresa onuradunek gehienez ere 2 milioi euroko finantzaketa jaso ahal izango dute proiektu bakoitzeko.

- Izaera txikiko zenbait baldintza ere malgutzen dira, hala nola Zerga Administrazioari komunikazioa aurkezteko moduari eta epeei dagozkienak, kenkaria aplikatzeko bete beharrekoak:

- Finantzaketa-kontratua proiektua hasi aurretik edo lehenengo 9 hilabeteetan sinatu behar da.
- Finantzatzailearen posizioan subrogatzea oinordetza unibertsaleko kasuetan baino ezin izango da egin.

- Erregelamendu bidezko garapena.

55/2024 Foru Dekretuak, abenduaren 3koak - 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzekoak -, 35 ter artikulua gehitzen dio Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduari, erakunde berritzaile sortu berriek egindako ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzen dutenen komunikazioa ezartzeko.

● 2/2024 FORU ARAUA, MAIATZAREN 10EKOA, KULTURA SUSTATZEKO ZERGA-PIZGARRIAK EGUNERATU ETA ZABALTZEN DITUENA (GAO 2024-05-17).

1. Bi artikulua berri sartu dira SZFAn, eta hamabosgarren xedapen gehigarria edukirik gabe geratu da:

- 66 bis artikulua. Kultura sustatzeko pizgarriak.
 - Bat apartatua. Ikus-entzunezko produkzioetako inbertsioak eta gastuak.
 - Bi apartatua. Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunengatiko kenkaria.
 - Hiru apartatua. Liburuen argitalpena.
- 66 ter artikulua. Ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzea.

2. 66 bis artikuluari dagokionez, honako aurreikuspen hauek ere sartu dira SZFAren 67. artikuluko kenkarien arau komunei dagokienez (kuota likidoaren gaineko % 50eko muga) eta gutxieneko tributazioaren arautik salbuesteari dagokionez (59.3 artikulua, Gutxieneko tributazioa).

- Erregelamendu bidezko garapena.

56/2024 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, zeinaren bidez Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen baita kultura sustatzea helburu duten zerga-pizgarriak garatzeko.

Bederatzi artikulua berri gehitzen dizkio ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduari, 37 bis artikulutik 37decies artikulura bitartekoak, Foru Arauaren artikulua berri horietan ezarritakoa garatzen dutenak.

• 509/2024 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 20KOA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITA 20F EREDUA, IKERKETA ETA GARAPEN JARDUERAK, BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKOAK, IKUSENTZUNEZKO OBRAK ETA ARTE ESZENIKO ETA MUSIKALEN ZUZENeko IKUSKIZUNAK EGITEKO PROIEKTUEN FINANTZAKETAN PARTE HARTZEAREN BERRI EMATEKOA (GAO 2024-12-31).

Honako hau komunikatzea:

- I+G+b proiektuen finantzaketan parte hartzea
- Ikus-entzunezko lanak eta arte eszenikoetako eta musikako ikuskizunak finantzatzen parte hartzea

Aurkezpena: kontratua formalizatzen den zergaldia amaitu eta hurrengo hilabetea.

Finantzaketa-kontratuaren kopia aurkeztu behar da bi kasuetan

I+G+b: SPRIk edo GFak emandako txosten arrazoitua

Kultura-pizgarriak: GFak edo Eusko Jaurlaritzak emandako kultura-ziurtagiria